

Informazio gehigarria

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, enpresari edo profesional batek Europar Batasuneko estatu batean, zerbitzua ematen duen estatuaz bestelako batean, establezimendua edo egoitza duen azken kontsumitzaile partikular bati emandako telekomunikazio zerbitzuak, irrati edo telebistakoak, eta elektronikoak ("TIE"), azken kontsumitzaile horrek establezimendua edo egoitza duen estatuan zergapetuko dira.

Horrek esan nahi du, era horretako zerbitzua ematen duten operadoreek, zerbitzu horien azken kontsumitzaileak diren bezeroek establezimendua edo egoitza duten estatu guztietan ordaindu beharko dutela Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

Horrek ekarriko dituen eragozpenak arintzearren, erregimen berezi bat ezarri da. Erregimen horri esker, era horretako zerbitzuak ematen dituzten operadoreek, identifikatuta dauden estatuko zerga administrazioaren bitartez bete ahal izango dituzte estatu horietako BEZaren gaineko zerga-betekizunak.

Erregimen berezi horrek bi modalitate ditu, nahiz eta Gipuzkoan bietan lehendabizikoa bakarrik aplikatu daitezkeen:

A. Erkidegoan finkatutako enpresari edo profesionali aplikatu beharreko erregimena. (Batasuneko erregimena)

Erregimen honetara bildu ahal izango dira:

- Beren jarduera ekonomikoaren egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan duten enpresari edo profesionalak; edo
- Beren jarduera ekonomikoaren egoitza Erkidegotik kanpo izanik, Gipuzkoako lurralde historikoan establezimendu iraunkor bat edo gehiago dituzten enpresari edo profesionalak.

B. Erkidegoan finkatu gabeko enpresari edo profesionali aplikatu beharreko erregimena. (Batasunaz kanpoko erregimena)

Erregimen honetara bildu ahal izango dira:

- Beren jarduera ekonomikoaren egoitza Erkidegoko lurraldetik KANPO izateaz aparte, lurralde horretan establezimendu iraunkorrik EZ duten eta, beste ezein arrazoirengatik BEZaren ondorioetarako identifikatzera behartuak ez dauden enpresari edo profesionalak.

Bi modalitate horietan lehendabizikoan (Batasuneko erregimena) sartutako enpresari edo profesionalak bakar-bakarrik aurkez dezakete 034 eredua Gipuzkoako Foru Ogasunean. Aldiz, Batasunaz kanpoko erregimenera bildutako enpresari edo profesionalak Zerga Agentzian aurkeztuko dute 034 eredua, baldin eta erregimen berezira biltzea erabakitzen badute.

Kontuan izan behar da, identifikazioko estatu kidea aukeratzeko, erregela komunitario batzuk bete behar direla:

- Beren jarduera ekonomikoaren egoitza Espainiako Zerga aplikaziozkoa den lurraldean duten enpresari edo profesionalek, erregimen berezia aukeratzeko badute, nahitaez Espainia aukeratu beharko dute identifikazioko estatu kideztat.
- Beren jarduera ekonomikoaren egoitza Batasunaren lurraldeaz kanpo izanik, establezimendu iraunkor bat Espainiako Zerga aplikaziozkoa den lurraldean duten enpresari edo profesionalek, establezimendu iraunkor hori Erkidegoaren lurralde osoan badute bakar-bakarrik aukeratu beharko dute Espainia identifikazioko estatu kideztat.

Beste estatuetan ere establezimendu iraunkorrak baldin badituzte, Espainia edo establezimendu iraunkor horiek dauden estatuetakoa bat aukeratu ahal izango dute identifikazioko estatu kideztat.

Identifikazioko estatua aldatu ahal izango da; horretarako, Batasuneko araudian ezarritakoa hartu behar da kontuan:

- Subjektu pasiboek beren jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkor bakarra Espainiako Zerga aplikaziozkoa den lurraldean badute, identifikazio estatutzat ezin dute izan Espainia ez den Europar Batasuneko beste estatu bat.
- Beren egoitza Erkidegotik kanpo izanik, identifikazioko estatu gisa Espainia aukeratzeko duten subjektu pasiboek, beste estatuetan ere establezimendu iraunkorrak baldin badituzte, identifikazioko estatuaz aldatzeko aukera izango dute, hasierako erregistroa egin duten urtetik aurrera bi urte igaro ondoren.
- Beren egoitza Erkidegotik kanpo izanik, eta ezein estatutan establezimendu iraunkorrik izan gabe, identifikazioko estatu gisa Espainia aukeratzeko duten subjektu pasiboek, noiznahi aldatu ahal izango dute identifikazioko estatuaz.

Erregimena aplikatzeko epeari dagokionez, erregimen berezia, oro har, enpresari edo profesionalak Batasuneko Erregimen Berezian bildutako eragiketen hasiera-aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkezten duen egunaren ondorengo hiruhileko lehen egunetik aurrera aplikatuko da.

Erregimen berezira bildutako enpresari edo profesionalek erregimen hori uzteko aukera izango dute, TIE zerbitzuak ematen jarraitu ala ez.

Horretarako, beren erabakiaren berri eman beharko diote Gipuzkoako Foru Ogasunari, erregimena erabiltzeari uztea pentsatu duen hiruhilekoa hasi baino gutxienez hamabost egun lehenago.

Gipuzkoako Foru Ogasunak, halaber, enpresari edo profesionala erregimenetik baztertu ahal izango du, besteak beste erregimen horri dagozkion zerbitzuak emateari uzten badio, edo

erregimenean egoteko baldintzak betetzen ez baditu, edota erregimenaren arauak sistematikoki urratzen baditu.

Behin erregimen berezia utzita, edo erregimen horretatik baztertuz gero, berriro ere erregimenera biltzeko eskaera egin daiteke. Hala eta guztiz ere, hasierako bajaren arrazoiaren arabera, berrogeialdia igaro arte itxaron beharko da estatu kide batean edozein erregimenera berriro biltzeko.

Zehazki:

- Erregimena nahita utzi badu, baja-egunetik hasita bi hiruhileko igaro beharko dute berriro erregimenera biltzeko.
- Arauak ez betetzeagatik baztertua izan bada, erregimenera ezin izango da berriro bildu, baztertu izan zenetik hasita zortzi hiruhileko igaro arte.

Subjektu pasiboa baztertzeko arrazoia erregimen berezia erabiltzeko beharrezkoak diren baldintzak ez betetzea izan bada, edo bata bestearen segidako zortzi hiruhilekoz TIE zerbitzurik ez emateagatik, jarduerak erregimen berezian ez dituela egiten suposatzen bada, berrogeialdia ez zaio aplikatuko.

Aitorpenen edukiari dagokionez, enpresari edo profesionalak egoitza edo establezimendu iraunkorrik ez duen beste estatuetan emandako TIE zerbitzuak aitortzeko bakar-bakarrik erabili ahal izango da erregimen berezi hau. Enpresariak egoitza edo establezimendu iraunkorra duen estatuetan, enpresari edo profesionalak kasuan kasuko estatuan emandako TIE zerbitzuetan sortutako BEZa sartu egin beharko du, egindako eragiketa guztiengatik aurkezten duen BEZ aitorpenean.

Europar Batasunean establezimendu iraunkor bat baino gehiago izanik, Gipuzkoako lurralde historikoan identifikatzea aukeratu duen enpresa batek, Gipuzkoan aurkezten duen aitorpenean sartu beharko du bere establezimendu iraunkor guztiek enpresak establezimendurik ez duen gainerako estatuetan emandako TIE zerbitzuetan sortutako BEZa.

Adibidez:

Jarduera ekonomikoaren egoitza Gipuzkoan duen enpresa batek Erresuma Batuko, Frantziako edo Portugaleko azken kontsumitzaileei ematen dizkie erregimen berezian sartutako zerbitzuak. Gainera, establezimendu iraunkorra dauka Errumanian, eta zerbitzuak establezimendu horretatik ematen dizkie egoitza Errumanian, Txekiar Errepublikan eta Bulgarian duten herritarrei.

Kasu horretan, Batasuneko erregimenera bildutako enpresa gipuzkoarrak erregimen berezian aitortu beharko ditu:

- Erresuma Batuko, Frantziako edo Portugaleko azken kontsumitzaileei bere egoitzatik emandako TIE zerbitzuak.
- Egoitza Txekiar Errepublikan eta Bulgarian duten azken kontsumitzaileei Errumaniako establezimendu iraunkorretik emandako TIE zerbitzuak.

Erregimen berezian ezin izango ditu aitortu establezimendu iraunkorrak errumaniar azken kontsumitzaileei emandako zerbitzuak. Zerbitzu horiek, establezimendu iraunkorrak Errumanian aurkeztu behar duen aitorten nazionalaren bitartez aitortu beharko ditu.

Era honetako zerbitzuak eman diren estatu kideetan zerbitzu horiek emateagatik jasandako BEZaren kenkaria egiteko, FINKATU GABEKOEN BEZa itzultzeko prozedura jarraitu behar da derrigorrez:

Batasunaren Erregimenean, establezimendua dagoen estatuan aurkeztuko da FINKATU GABEKOEN BEZa itzultzeko eskaria, kasuan kasuko kontsumoko estatuari zuzendua. Hala eta guztiz ere, kontsumoko estatu kidean erregimen berezira bildutako eragiketez bestelakoak egiten badira, eta jarduera horiek estatu kide horretan erregistratzeko eta aitorten-likidazioak aurkezteko obligazioa badakarte, jasandako kuoten kenkaria aitorten horietan egingo da.